

OINARRIZKO HEZIKETA LERROAK

1. Pertsonaren garapen integrala:

Ikastola osatzen duen komunitate osoaren barne munduaren lanketa bultzatu nahi dugu heziketa formal nahiz informalean, adimen emozionala eta norberaren gaitasunen eta ahulezien autoezagutza bultzatuz, bere ongizate pertsonalean eta garapen kognitiboan eragiteko.

2. Ikaskuntza esperientzia esanguratsuak, ikaslea erdigunean jarriz:

Gure ikasleek bere buruarengan konfiantza, ibilbide autonomoa, ikasteko konpromisoa eta jarrera ekintzailea garatu dezaten nahi dugu, ikaslea heziketa esperientzien erdigunean jarriz. Honela, testuinguru errealak eta esanguratsuak eskaini nahi dizkiogu ikasleari, ikaskuntza prozesu aktiboa eta globalaren bitartez, ezagutzen eraikuntza zentzuz josita, pertsona bere osotasunean garatzeko baliagarria izan dadin. Gainera, ikasleari ikasteko, autoerregulatzeko, bere burua kokatzeko eta hobekuntzak proposatzeko balio dion **ebaluazioa** sustatu nahi dugu.

3. Hezkuntza komunitatearekin elkarlanean oinarritutako ikaskuntza:

Gure ikastola, familia eta hezkuntzako profesionalen elkarlanaren ondorio den heinean, elkarrenganako konfiantza, koordinazio eta komunikazioa ezinbestekoa da ikaslearen heziketa integrala lortzeko. Denon ongizatea bermatzeko, bizikidetza giro atsegina eta abegikorra sustatu nahi dugu, diziplina positiboaren ildotik, eta kooperatibotasuna ikastolaren dimentsio guztietan integratu.

4. Eleaniztasuna helburu, euskara ardatz:

Ikasle euskaldun eleanitzak hezteko, hizkuntzen trataera integrala eta bateratuaren ikuspegia jarraituko dugu. Euskara modu erosoan erabiltzea bermatzen duen hizkuntza politika garatu nahi dugu eta euskal kulturaren sustapenean eragile diren erakundeekin elkarlanean arituko gara.

5. Inklusibitatea:

Pertsona guztiak barne hartzen dituen heziketa inklusiboa bermatu nahi dugu. Ikastolak pertsona oro sentiarazi nahi du komunitateko partaide, aniztasunaren aberasgarritasunean oinarrituz, heziketa esperientzia irekiak eta malguak eskeiniz, irakaskuntza pertsonalizatua eta aukera berdintasuna bermatu nahi ditugulako.

6. Ikaskuntza espazioak eta denborak ikaskuntzaren zerbitzura:

Ikastolako espazioen eta denboraren diseinuak, erabilerak eta antolaketak ikaskuntza aktiboa ahalbidetuko du, garapenaren erritmoa eta ezaugarriak kontuan harturik eta lan kooperatiboak eta pertsonalak egiteko esperientziak eskainiz. Taldekatze desberdinen bitartez eta espazio eta denboraren kudeaketa eraginkorraren bitartez, komunikazio eraginkorra eta elkarrekintzarako testuinguruak sustatu nahi ditugu eta aldi berean, hausnarketa eta lan indibidualerako gune eta momentuak ere bermatu nahi ditugu.

7. Hezitzaile bidelagunak:

Ikastola osatzen duen komunitate osoaren barne munduaren lanketa bultzatu nahi dugu heziketa formal nahiz informalean, adimen emozionala eta norberaren gaitasunen eta ahulezien autoezagutza bultzatuz, bere ongizate pertsonalean eta garapen kognitiboan eragiteko. Hezitzaileak, bidelagun eta eredu izanik, ikasleari bere bizi proiektua definitzen lagunduko dio eta, ikaskuntza ekintza sozial gisa ulerturik, ezagutzaren eraikuntza partekatua garatuko du, bai ikasleekin, baita lankideekin ere.

8. Munduaren garapen iraunkorrerako helburuekin atxikita dagoen ikaskuntza.

Ikastolak gizartea eraldatzeko duen erantzukizunetik, giza balioak eta munduaren garapen iraunkorra bultzatzeko irizpideekin bat egiten duten ikaskuntza esperientziak diseinatu nahi ditu.